

8KO NAGUSIA

Iñaki Gurrutxaga eta Uxue Alberdi

INEMeko bi langile zarete. Egunero bezala, goiz-erdian, kafea hartzera atera zarete langabe-ilara luzea han utzita.

Iñaki Gurrutxaga hasita, hiruna bertso zortziko handian.

Julio Soto eta Miren Artetxe

Zuen familiako belaunaldi guztiek zirkoan egin izan duzue lan urtetan. Beste askotan bezala, astebete igaro duzue herri batean; dena bildu, eta bazoazte beste herri batera.

Julio Soto hasita, hiruna bertso zortziko handian.

Oihana Bartra eta Jone Uria

Ez da denbora asko zuen semea etxetik joan zela. Astean behin etortzen zaizue bisitan. Oraintxe sartu da atetik tuperbare hutsak eskuartean dituela.

Oihana Bartra hasita, hiruna bertso zortziko handian.

8KO TXIKIA

Uxue Alberdi eta Julio Soto

Bikotea zarete. Uda aurretik, egunero joaten zen Julio Soto gimnasiara pesak egitera. Uda bukatu denetik, ez da sofatik ia altxa ere egin.

Uxue Alberdi hasita, hiruna bertso zortziko txikian.

Jone Uria eta Iñaki Gurrutxaga

Bi lagun zarete. Uda herriz herri, festaz festa pasatu duzue. Jone Uria asteburu honetan aurreko asteburuko toki berera joatea proposatu dizu Iñaki Gurrutxagak, baina zuk ez duzu nahi.

Iñaki Gurrutxaga hasita, hiruna bertso zortziko txikian.

Miren Artetxe eta Oihana Bartra

Aita/ama-semeak/alabak zarete. Oihana Bartra
semeak/alabak erabiltzen duen autoa zure izenean dago,
Miren Artetxe eta dagoeneko bost gutun jaso dituzu trafikotik.

Miren Artetxe hasita, hiruna bertso zortziko txikian.

PUNTUARI ERANTZUNAK

Iñaki Gurrutxaga

Azken txapelketatik / jadanik lau urte
Txapelaren atzetik / horrenbeste buru
Abenduak hamahiru / eta Barakaldo

Uxue Alberdi

Herri hontakoa zen / Uztapide zena
Zuek ote zarete / enborran ezpala
Egun osokoa zen / garai hartan plaza

Julio Soto

Udan arrauna eta / neguan futbola
Esku-pilota berriz / aspertzeko beste
Ta hitzaren kirola / ostegun gauetan

Miren Artetxe

Puntuazio ona / zuk lortu ezkerro
Ondo erantzun behar / puntuak lortzeko
Puntu txarrak zirenik / ez esan mesedez

Oihana Bartra

Bainu-etxea dugu / guztion eskura
Jakusian murgildu / ta ura borborka
Ta gero masaje bat / algak ta buztina

Jone Uria

Bihar euskararekin / Donostian zita
Euskararen festara / litroak hartuta
Pena zita urtean / behin bakarrik dela

10EKO TXIKIA

Julio Soto eta Jone Uria

Lanera joan aurretik, kafe bat hartu duzu taberna batean, Julio Soto eta Jone Uria ikusi duzu han. Gaueko hamaikak dira, berriz sartu zara taberna berean, eta han jarraitzen du Jone Uriak.

Julio Soto hasita, hiruna bertso hamarreko txikian.

Iñaki Gurrutxaga eta Miren Artetxe

Zuk Iñaki Gurrutxaga lan-elkarrizketa bat duzu, eta haurdun zaude. Elkarrizketan haurdunaldia ez aipatzeko aholkatu dizu Miren Artetxe lagunak.

Iñaki Gurrutxaga hasita, hiruna bertso hamarreko txikian.

Uxue Alberdi eta Oihana Bartra

Aita/Ama-semeak/alabak zarete. Gaur Oihana Bartra semearen/alabaren ezkontza-eguna da, eta bi ordu daramatzazue bere bikotekidearen zain.

Uxue Alberdi hasita hiruna bertso hamarreko txikian.

KARTZELA

Eskuartean duzu sinatu beharreko papera.
Hiru bertso nahi duzun doinu eta neurrian.